

EHU-KO UDA IKASTAROA - TAILERRAK / CURSO DE VERANO DE LA UPV - TALLERES

DONOSTIA • Palacio MIRAMAR Jauregia • Uztailak 22 - 23 - 24 de julio

Garaiz gabiltza Estamos a tiempo

Bizitza jasangarrien bidea nola egin
Cómo caminar hacia las Vidas SOSTenibles



UDA IKASTAROA
CURSOS DE VERANO
SUMMER COURSES
UPV/EHU



AZTERTU, ALDARRIKATU ETA EGIN

Tipi - Tapa, urratsez urrats,
asko gara ibilbide honetan...
Bat egiten al duzu gurekin?

ANALIZA, REIVINDICA Y ACTÚA

Tipi-Tapa, paso a paso,
ya somos muchas en este camino...
¿Te apuntas?

info + matrikula: uik.eus

Antolatzen dute / Organizan

Laguntzen dute / Con el apoyo de



MUGARIK GABE
Giza Garapen Jasangarria eta bideakoa lortzeko
lankidetzarako gobernu kanpoko erakundea
Herri-Onurako Elkartea



**TIPI-TAPA
ERABAZ!**
Hacia vidas SOSTenibles

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Nazioak, Garapen
eta Kirol Departamentua



GIZAKI
ELKARTASUNA



**GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA**
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

IKASTAROAREN LABURPENA

AURKEZPENA

Erronka handiei egin behar diegu aurre: petrolioa agortzea, klima-aldaketa, prekarietatea, eskuin muturren gorakada, indarkeria matxistak, etengabe urratzen diren Giza Eskubideak... Krisia sistemikoa da, eredu sozial eta ekonomikoarena.

Baina **garaiz gaude zoramen hori guztia geldiarazi eta bizitzak erdigunean jartzeko...** «Kontsumitu eta isildu» pentsamendu bakarraren eta hazkunde infinituaren aurrean, egoera aldatzeko modu asko existitzen dira.

Udako Ikastaro honetan, tailerren bidez hori nola egin dezakegun ikusi genuen **lau eremutatik: energia, elikadura, zaintzak eta ekonomia**. Talde lanean, ikus-entzunezkoekin eta modu dinamiko batean, tailerrak honela antolatu ziren:

- 1. eguna, AZTERTZEN: Nola irauten dute gaur egun gure munduak eta gure bizitzek?
- 2. eguna, ALDARRIKATZEN: Hainbat aldarrikapenetan murgildu Bizitza Jasangarrietara gerturatzeko.
- 3. eguna, ARITZEN: Zer egin dezakegu gure egunerokoan Bizitza Jasangarrietaranzko eraldaketa sustatzeko?

Ikastaroko edukien oinarria azken urteetan **Desazkundera eta Bizitze Ona Sareak** egindako lana da. 2010etik hainbat antolakunde, sindikatu, kolektibo eta gizarte-mugimenduk hartu dugu parte sare horretan. Batez ere, planetaren eta bizitzaren zaintza ardatz nagusitzat kokatuko duten antolaera sozialeko bestelako ereduak ezagutzera emateko eta aldarrikatzeko.

Finantza-krisiaren garai horietan, alternatiben bilaketan, ekonomia-desazkunderaren aldeko mugimenduak nolabaiteko ospe edo garrantzia hartu zuen gizarte-mugimenduen artean; horrela, ordura arte elkarlan gutxiago izandako mugimenduek bat egin genuen (ekologismoa, feminismoa, garapenerako lankidetzak, giza eskubideak, sindikalgintza...) indarrak batzeko, elkarrengandik ikasteko eta, hain zuzen, ezarritako sistematik haragoko bizimoduak mahaira ateratzeko.

Gutxi gorabehera, orduan hasi ginen urteroko topaketa batzuk antolatzen, 2016. urtera arte; bertan, Desazkundera eta Bizitze Onarekin lotutako hainbat gai landu genituen. 2016tik aurrera, urte horietan landutakoa ezagutzera ematea erabaki genuen, idatziz jasotzea eta aldarrikapen horiek guztiak herritarrei zein erakundeei helaraztea, hainbat bitarteko baliatuz.

Horrelaxe sortu zen TIPI TAPA BAGOAZ – HACIA VIDAS SOSTENIBLES kanpaina; argitalpenak, dokumentalak, umorezko bideoak, komikiak, kaleko antzerkia eta honako ikastaro hau, besteak beste.

Bide honetan, 4 ekinbide definitu genituen, guretzat ezinbestekoak zirenak:

1. **Elikadura**, elikadura-burujabetza aldarrikapen gisa.
2. Kontsumitzen dugun **energia**, trantsizioa eta energia-burujabetza aldarrikatuz.
3. Pertsonen **zaintza**, ekonomia feministaren ikuspegitik.
4. **Ekonomia**, birlokalizatzeko eta pertsonen zerbitzura egoteko beharra.

Ekinbide guztiak elkarlotuta daude, ikastaroan egiaztatu genuen moduan.

IKASTAROAREN DINAMIZATZAILEAK

Esther Muñoz Alonso

Energia-eredua eraldatzeko aktibista gizarte-mugimenduetan. 2001etik Ingeniería Sin Fronteras antolakundeko bazkide eta boluntarioa da; 2011tik energia elektrikoa sortu eta merkaturatzeko Som Energia kooperatibak Bilbon duen taldeko bazkide kooperatibista eta boluntarioa; 2017tik Goiener eta Energetica-ko bazkidea; eta Sorkin «jakintzen laborategia» delakoaren bazkide sortzailea, ikuspegi feministatik bizitza erdigunean lantzen duen irabazi-asmorik gabeko antolakundea. "KISAR, Energía e innovación social izeneko aholkularitza enpresan egiten du lan; ingurumenaren eta jendartearen ikuspegitik eredu berriagarri eta jasangarri baterantz trantsizio energetikora bideratutako enpresa, alegia".



Nadia López Ruiz




Baserritarra. Duela 5 urtetik baratze batean egiten du lan (Basortu Agroekologia) eta barazki eta fruten kontserba-lantegi batean (Maskilu Kontserbak); azken honetan era kolektiboan egiten dute lan Arratia haraneko ekoizle gazteek, Zeberion. Tokiko eta munduko nekazaritza sistema eraldatzeko lanean dabilta, Elikadura Burujabetzak proposatzen duenak sistema eraldatu dezakeela uste baitute. Bizilur-en elkarlanean aritzen da, eta Etxaldeko emakumeak taldeko aktibista ere bada; feminismoaren, elikadura burujabetzaren eta nekazari mugimenduaren artean loturak eta sinergiak sortzeko elkartzen diren emakume taldea da azken hori.

Leticia Urretabizkaia Gil

Feminismos Desazkundera kolektiboko kidea da; bertan aritzen da desazkundera ikuspegi feministatik eta feminismoa desazkundera-ikuspegitik elikatzeko. Desazkundera mugimenduan hasi zen Elikadura Burujabetzaren landa-proposamenaren alderdi urbanoa iruditzen zitzaiolako. Hain zuzen, elikadura burujabetzan espezializatu izan da azken aldian, ikerketa, formakuntza eta argitalpenen bidez ikuspegi feministan sakontzeko. Desazkundera eta Bizitze Ona Sarean parte hartu du bere kideekin batera, ildo horietan guztietan sakontzeko espazio sozial interesgarria dela deritzolako. Humanitateetan lizentziaduna da eta Globalizazioa eta Garapena masterra egin du Hegoa Institutuan.



Pepe Ruiz Osoro



Feminismos Desazkundera kolektiboko kidea; bertan dihardu desazkundera ekofeminista kolektiboaren alde parte hartzen. Desazkundera eta Bizitze Ona Sarearekin batera, desazkunderaren printzipioen zabalkuntzan dihardu, jardunaldi, artikulatu eta tailerren bidez. Aktibismoaren bidez baita ere, Herri Hezkuntzarekin eta Elikadura Burujabetzarekin lotutako mugimenduetan hartzen du parte. Ikasketaz Ingurumen Zientzietan eta Kazetaritzan lizentziaduna, Hegoa Institutuko Globalizazioa eta Garapena masterra egin du.

1. EGUNA, AZTERTZEN

Ikastaroaren aurkezpenaren ostean, aurkezpen bira bat eta elkar ezagutzeko dinamika bat egingo ditugu, konfiantzazko giroa lortzeko.



Jarraian edukiei helduko diegu, **Zaintza arloarekin hasita**. Esaldi batzuk proiektatu, eta jendea gelan zehar kokatu behar da esaldiarekin duen adostasun-mailaren arabera: adostasuna, neutroa edo desadostasuna.

Honekin landu nahi duguna da bizitza, nagusiki, merkatutik at sostengatzen dela, merkatuaren baitan baino gehiago. BPGaz soilik hitz egiten duen ekonomia ofizialaren aurrean, badaude merkatutik at geratzen diren etxeko lanei eta zaintzari buruzko datuak; Espainiako Estatuan 26 milioi “lanpostu” dituzte lan mota horiek, eta ekonomia ofizialak, aldiz, 18 milioi lanpostu. Hortaz, ekonomia “erreal” eta “produktiboak” (ikusezina) sostengatzen du finantza-ekonomia espekulatiboa (agerikoa). Alabaina, lehenengo ekonomia mota ez da kontuan hartzen, ez dago ordainduta eta batez ere emakumeek sostengatzen dute.

Jarraian, *Cuidar Entre Terres* dokumentalaren trailerra proiektatuko dugu, etxeko langileen egoerari eta zaintza-kate globalei buruzkoa:: <https://www.youtube.com/watch?v=1x68rOxmTrg>

Kutxen dinamikarekin hasiko gara; hainbat estatistiketan oinarrituta, emakume eta gizonei dagozkien portzentajeak kutxa-dorreen bidez irudikatuko ditugu. Parte hartzaile bakoitzak portzentaje bat ematen du, eta taldeetan bilduta portzentaje bakoitza zergatik aukeratu duten eztabaidatzen dute.

Taldeetan erantzun bat adostu eta gero, kutxen bidez partekatuko dute:

GALDERA	IKASLEEN IRITZIAK – GOGOETAK	IKASLEEN ESTIMAZIOA	DINAMIZATZAILEEN EKARPENAK	DATU ERREALA
Familiaren zaintzarengatik eszedentzia eskatu duten emakume eta gizonen portzentajea (Euskal Autonomia Erkidegoa, 2016)	Gizon helduek ez dute zaintzen ikasi	Gizonen %30 eta emakumeen %70	Datua: 0-3 urte artean, soilik 10etik 3 hurrek jasotzen dute arreta profesionala; gainerakoak beren kabuz moldatu behar dira. Etxeak dira egokitze-aldaia: krisi egoeretan zerbitzu publikoak murrizten direnean, etxeak hartzen dute zaintzaren ardura, hau da, emakumeek.	Emakumeen %91 eta gizonen %9
	Kulturalki, emakumeak zaintzara bideratuta daude oraindik ere			
	Orokorrean, ohiko bikoteetan gizona nagusiagoa da, eta emakumeak baino lehenago behar du zaintza; horregatik emakumeek lehenago eskatzen dute eszedentzia			
	Gizonezko gutxiago doaz egoitzetara, emakumeek zaintzen dituztelako			
	Erantzunkidetasuna ez da existitzen etxeetan (nekez ari da hasten), ontzat ematen delako emakumeek etxea zaindu behar dutela			
	Laneko prekarietateak ere eragiten du; ez da etxea zaintzeko denborarik eskaintzen eta kanpora jotzen da laguntza bila			
	Hezkuntza-sistemak ere ez du dagokion lana betetzen: eskolan ez da zaintzaren inguruan hezten, ez digute zaintzen irakasten			



GALDERA	IKASLEEN IRITZIAK – GOGOETAK	IKASLEEN ESTIMAZIOA	DINAMIZATZAILEEN EKARPENAK	DATU ERREALA
Egun batean, batez beste, lanaren zein portzentaje egiten dute emakumeek? Eta gizonek?	Lanaldiak eta etxeko lanak bereizten ditugu; nahiz eta etxeko lanak banatu, emakumeok etxea kontrolatu nahi izatea da arazoa	Gizonek %30 eta emakumeek %70	Eraldaketa oraingo abiadura ikusita, ekitatea 2200. urtean lortuko dugu arlo honetan	Emakumeek %61 eta gizonek %39
	8 orduko lanaldia gehi 6 ordu etxerako lanetarako, gutxi gorabehera		Etxeko lanei eskainitako denboraren grafikoa proiektatu dugu; bertan ikus daiteke emakumeek eskainitako denbora gizonek eskainitakoaren bikoitza dela.	
	Joera aldatzen ari dela dirudi		EAEn behar fisiologikoei, lanari etab eskaintzen zaion denboraren grafikoa proiektatu dugu: emakumeek denbora bikoitza eskaintzen diete etxeko lanei, eta gizonek baino gutxiago aisialdiari.	
	Milaka urte dituen sistema batean, oso pixkanaka ari da aldatzen			
	Grafikoa 2013koa da; egoera gehiago prekarizatu da ordutik			
	Grafikoak ez du jasotzen lan boluntarioa, politikoa, militantzia, etab			

Jarraian, ikasleei eskatu diegu 3 grafiko egiteko, honako galderetan oinarrituta:

GALDERA	IKASLEEN IRITZIAK – GOGOETAK	IKASLEEN ESTIMAZIOA	DATUA
Emakumeen zein portzentajek dute lan-kontratu mugagabea EAEn 2015ean?	-Emakumeek lan prekarioagoak onartzen ditugu, premia handiagoa dugulako; hortaz, lan prekarioak onartzen ditugu -Enpresariak seme-alabak izateko adinean ez dauden emakumeak bilatzen dituzte	Gizonen %70 eta emakumeen %30	Gizonen %52 Emakumeen %48
Eta aldi baterako kontratua?		Emakumeek aldi baterako kontratu gehiago dituzte	Gizonen %48 Emakumeen %52
Eta kontratu gabeko soldatapeko lana?		Emakumeen %70 eta gizonen %30	Gizonen %15 Emakumeen %85

Azken hausnarketa, bakarkakoa lehenengo eta taldekakoa gero:

GALDERA	IKASLEEN IRITZIAK – GOGOETAK	IKASLEEN ESTIMAZIOA	DATUA
---------	------------------------------	---------------------	-------

	IKASLEAK		
Seme-alabarik gabeko emakume eta gizonen enplegu-tasa	Zergatik daukate aita diren gizonen enplegarritasun handiagoa, aita ez diren gizonen baino? Adin kontuarengatik	Nahiko antzekoa da kasu askotan	Emakumeen %79 Gizonen %81
Seme-alabadunak			Emakumeen %71 Gizonen %90



Atsedeneren ostean, **elikadura eta energia ardatzak** lantzen hasiko gara.

Munduko energia-kontsumoaren %90 iturri fosiletatik dator. Energia-kontsumoa, gaur, sistema ekonomikoaren beharren arabera da:

- Kontsumoaren etengabeko gorakada
- Energia merke eta oparoa, Hegoaldeko herrialdeetan erauzketa azpikontratatu izan duten energia fosilak, honako ondorioak sortuz:
 - Ingurumenaren degradazioa.
 - Lan-esplotazioa.
 - Indarkeria.
 - Herrialde esportatzaileen pobrezia.
- Ez-demokratikoa, energia sortzeko zentral handietan oinarritua (elektrizitatea), edo banatzaile gutxi (gasa), boterea esku gutxitan.

Ondorioa: sistema sostengaezina, baliabide mugatuak erauzteko industrietan oinarritua (gasa, ikatza, uranioa, petrolio).

Eredu honen aurrean, Energia Burujabetza proposatzen dugu, honako printzipioak dituen:

- DEMOKRAZIA: zer ekoizten eta kontsumitzen dugun jakitea.
- Ekoizpen metodoen KONTROL SOZIALA. Oligopolio nagusiak desagertzea.
- JASANGARRITASUNA: baliabide fosilak mugatuak eta kutsatzaileak dira. Aurreztearen, eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien alde egin.
- DESAZKUNDE ENERGETIKOA: Hazkunde-eredua eraldatzea, desazkundearen aldeko energia-eredu jasangarrirantz.
- DESZENTRALIZAZIOA: orain artekoa betetzeko ezinbesteko baldintza.

Jarraian tailertxo bat egingo dugu, talde bakoitzak etxeko energia-kontsumoa kalkulatu dezan. Ondoren, hausnarketa gisa, ondorioztatuko dugu behar ez ditugun etxetresna elektriko asko erabiltzen ditugula behar ez ditugunean, eta gure energia-kontsumoa ez dela batere jasangarria.

Hemendik lotura egiten dugu elikagaiak ekoizteko beharrezko energia-kontsumoaren gaiarekin, eta gure elikadurak daukan eragin energetikoarekin. Horrela, agronegozioak VS nekazaritza jasangarri edo agroekologikoaren eztabaidari helduko diogu. Agronegozioek eragina daukate ingurumenaz harago, esaterako: agronegozioetako langileen prekarietatea, nekazari tradizionalen ogibideak galtzea, herriak hustea, osasun-arazoak elikagai mota jakinek eta pestizidek sortuak... Guk ere badugu arduraren zati bat; izan ere, ehunekoetan, gero eta gutxiago gastatzen dugu elikaduran. Zentzu horretan, dieta moten inguruan hausnartu dugu: beganoa, begetarianoa, mediterraneo eta haragijalea. Dieta bakoitzaren energia-gastua aztertu dugu. Datuen arabera, bai dieta agroindustrialetan zein dieta ekologiko edo Km0 delakoetan, euskal dietaren energia-gastuak bikoiztu egiten ditu dieta begano eta begetarianoak. Hala ere, nabarmen gutxiago kontsumitzen dute Km0 edo ekologikoak diren elikadurek, agroindustrialekin alderatuta.



Elikaduraren modak eta haien ondorioak ere kontu interesgarriak dira; Valentzia, adibidez, ahuakatez betetzen ari da, zitrikoen kaltetan.

Lehenengo egunarekin bukatzeko, taldekako ariketa bat proposatu dugu, elikagai-sistema agroindustrialek krisi klimatikoa zein neurritan areagotzen duen kalkulatzeko. Jarraian benetako emaitzak jaso ditugu; krisi klimatikoan faktore bakoitzak zein ehunekotan eragiten duen ikus dezakegu:

- Basogabetzearen ondorioz: %15-18 (Agroindustriak lurralde berriak bereganatu behar ditu etengabe)
- Nekazaritza lanaren ondorioz: %11-15
- Garraioaren ondorioz: %5-6 (distantzia luzeko nazioarteko sistema da)
- Prozesatzea, eraldatzea eta paketatzea: %8-10
- Hozte-sistema (hotz-katea) eta xeheka saltzea: %2-4
- Hondakinak: %3-4 (baztertutako produktuak)

Eredu honen aurrean, eta bigarren eguneko atariko gisa, Desazkundearen ideia aldarrikatuko dugu:

- Desazkundera minutu batean (bideoa): https://www.youtube.com/watch?v=Ypgrq_4Aj84

2. EGUNA, ALDARRIKATZEN

Aldarrikapenei heldu baino lehen, egungo elikagai-ereduaren jatorria aztertzen hasiko dugu bigarren eguna. Elikagaiak ekoizteko eredu agroindustrialak sistema neoliberal kapitalista du jatorri; sistema horren nazioartekotzearen ondorioa da. Horrela, elikadura eskubide unibertsala izan arren, edozein herrialdetan borroka-eremu eta arlo estrategiko bihurtu da: hornikuntzaren jatorri, bioaniztasuna eta ingurumena zaintzearen arduradun, lurralde-kudeaketan eta identitate auzietan giltzarri.

Illo horretan, hainbat hausnarketa sortu dira:

- Kapitalismoaren boterea, publizitatearen bidez dena erakargarri ikus dezagun.
- Estatu Batuak Europako enpresen eta ekonomiaren jabe egiten ari dira, eta, aldi berean, beren hizkuntza eta ohiturak inposatzen ari dira marketingaren bidez.
- Ez dugu Txinaz ahaztu behar, eta batez ere, fruta ekoizteko Afrikan bereganatzen ari den lurraz.
- Egiaz, ez da eredu hori zalantzan jartzen; leku batean ekoitzi eta handik oso urruti dagoen beste batera eramatearen eredua, alegia.

Euskal Herrian, 1950. urte inguruan elikadura-sistema nahiko lokala zen; ekoizten zena jaten zen.

- Baserri bakoitzak praktika agroekologiko buruaskia zuen, anitza, eta egitura komunaletara lotutako lurraldearen (basoa) kudeaketa. Kantauri itsasertzari lotutako eredua zen.
- Arabako eredua bestelakoa izan da, lurralde-kudeaketari dagokionez. Herri txikiak izan ohi dira, inguruan lur asko dituztenak, eta zerealak, barazkiak eta fruitu arbolak ekoizten dituzte.

Bilbon, adibidez, banaketa handia 1970eko hamarkadan hasi zen, Mercabilbao-rekin. Hau da, bitartekari bat txertatu zen, eta ondorioz zuzeneko salmenta kaltetu. Mercabilbaok zer ekoitzi behar duzun agintzen dizu, eta prezioa ezartzen du.

Egoera global horren aurrean Elikadura Burujabetzaren proposamena dago; besteak beste aldarrikatzen da lurra nekazarien esku egon behar duela, eta gaur egun ez da horrela. Hori frogatzeko lurraren jabetzan dagoen desparekotasunaz hitz egin dugu (metatzea, titulartasuna...) Gini indizearen ikuspuntutik.

Zer gertatu da? Gero eta nekazari gutxiago daude, landutako lur gutxiago, eta lurra gero eta esku gutxiagoren artean dago banatuta. Esplotazioen batez besteko tamaina handitu egin da, lursail ertain eta handiak dira lur gehien metatzen dutenak, eta zenbaitetan, ixten dituzten esplotazioek libre utzitako lurra xurgatzen dituzte. Horrez gain, ez dago belaunaldi-erreleborik, eta lurraren titulartasuna, orokorrean, adinekoen eta gizonen izenean dago.

NPB delakoari erreparatzen badiogu (Europar Batasuneko Nekazaritza Politika Bateratua), datuek erakusten dutenaren arabera, lurra metatzen joan direnak diru-laguntzak metatzen joan dira baita ere. Izan ere, lur gehien bereganatzen dituenak, nahiz eta ez erabili, laguntza gehien lortuko ditu. Horrela, laguntzarik handienak enpresa handiek eskuratzen dituzte: Mercadona, Zumosol, Pastas Gallo... Horrela, diru-laguntzen banaketa ikusi dutenean, amorru sentipena sortu da ikastaroko parte hartzaileen artean eta gogoratu dugu gerraostean ere lur asko desjabetu zirela, eta egungo egoera ordukoaren ondorio ere badela.

Lehen eguna eta bigarrenaren zati bat azterketa globala egiteko erabili ondoren, eta aldarrikapenei sakonago heltzeko, 2018ko otsailaren 23 eta 24an Bilbon ospatu zen Bizimodu Jasangarrietarako

Herri-Auzitegia zer izan zen azaldu dugu. Herri-Auzitegian tokiko zein mundu-mailako enpresa eta estatuen eskubide-urratzeak salatu ziren, ikastaro honetan lantzen ari garen lau ardatzen arabera. Eraikuntza kolektiboko prozesu horretan 8 kasu identifikatu genituen, mundu osoan gertatzen diren beste kasu askoren adierazle gisa.

Egun horietan argi geratu zen estatu askok, sistema kapitalista neoliberal heteropatriarkalaren testuinguruan, etengabe urratzen dutela herritarren bizi-baldintzak babestu eta hobetzeko betebeharra. Bereziki kriminalizatu eta jazarri egiten dituzte herri indigenen eskubideak, luraren alde borrokatzen duten nekazariak, lurralde- eta elikadura-burujabetza, bizitzaren maila guztietan eskubide mugatuak dituzten emakume eta identitate anitzak, naturaren defentsarako mugimenduak eta bizileku dituzten lurraldeekiko eskubideak.

- ✓ Bideoa ikusgai hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=NTeKW2NfK10>
- ✓ Auzitegiaren Liburua irakurgai hemen: <https://www.decrecimentoybuenvivir.info/wp-content/uploads/sites/4/2019/03/Tribunal-Popular-EUS-web.pdf>

Auzitegiaren berri ez zeukatenez eta bertan landutako gaiak ikusita, parte-hartzaileek amorrua adierazi dute honelako ekimenek zabalpen gehiago ez izateagatik; jendea guztiz lerrokatuta eta itsu dago.

Atsedenen ostean beste dinamika bati ekin diogu: talde bakoitzari bi irudi banatu zaizkio, eta irudietan ageri denaren inpaktua identifikatu behar dute. Gero, irudietatik abiatuz, aldarrikapenak identifikatu behar dituzte inpaktu horiek erakunde- edo estatu-mailan (berde-horiz), merkatu mailan (urdina) edo jendartean (arrosa) nola erreparatu irudikatzeko.



1. Taldea

1. ARGAZKIA: ARRASTE ARRANTZA

Merkatua

- Arraste-arrantza desagertzea
- Arrantzatutako produktuari buruzko informazioa eskaintzea, jatorria adierazita
- Nazioarteko itunak eta herrialde bakoitzeko legeak betetzea

Jendartea

- Arrain kontsumoa murriztea, amuko arrain gehiago eta arrasteko gutxiago kontsumitzea

- Arrandegi txikietan gehiago erostea (gertuko eta sasoiko produktu gehiago dauzkate), merkataritza-guneetan erosi beharrean

Estatua

- Arrantza-mugak gehiago kontrolatzea
- Arrantzale txikiei mesede egitea
- Tokiko arrantza sustatzea
- Arraste-arrantza isuntzea

Dinamizatzailleen oharra: hobe da arraste-arrantza piszifaktoriakoa baino, piszifaktorian arrainak pilatuta daudelako eta energia-gastu handia duelako.

2. ARGAZKIA: MONOLABORE HANDIAK

Estatua:

- Lurren gaineko kontrol handiagoa
- NPBak kontrol handiagoa izatea, ekoizpenean gehiago eta azaleran gutxiago oinarritzea
- Pestizidak kontrolatzea; pestizida ilegalak dituzten produktuak heltzen zaizkigu
- Tokiko haziak babestea hazi artifizialen aldean, eta hazien pribatizazioa debekatzea
- Aniztasuna, monolaborearen ordeztu
- Produktuen kostu erreala adieraztea, ingurumen-kostua kontuan hartuta.

Merkatua

- Landa eremuan lan egiten dutenentzako soldata duina
- Sasoiko eta tokiko produktuak sustatzea
- Produktuari buruzko informazio gehiago eskaintzea

Jendartea

- Erosketa kontzientea egitea, ekologikoa eta gertukoa, kostu erreala kontuan hartuta
- Hazkuntza azkarreko produkturik ez kontsumitzea
- Kontsumitzen dugunarekin kritikoago agertzea; irakurri, informatu, eredu izan
- Eskoletan hezte

Dinamizatzailleen oharra: jadanik badaude zenbait produktu, zeintzuetan ekoizleari ordaindutako prezioa adierazten den.

2. Taldea

1. ARGAZKIA – FRACKINGA (HAUSTURA HIDRAULIKOA)

Estatua

- Birziklatzeko neurriak ezartzea
- Ekonomia zirkularra sustatzea
- Multinazionalen gehiegikeriak isuntzea
- CO2 isuriak kontrolatzea
- Energia berriztagarriak diruz laguntzea
- Epe luzera hausnartzea

Jendartea

- Energia berriztagarria kontsumitzea
- Hizkuntza ez-kapitalistara jauzi egitea: baliabideak EZ, ondasunak BAI
- Epe luzera hausnartzea

Merkatua

- Dirua energia berriztagarrietan inbertitzea
- Etika handiagoaz ustiatzea
- Jendartearekiko eta ingurumenarekiko ardura handiagoa izatea

Dinamizazioaren oharra: fracking lizentziak ematen ari dira berriz ere Euskadin, adi egon behar gara. Eraginkortasun energetikoaren kontuarekin, gauza asko ezkututzen ari dira.

2. ARGAZKIA – ANIMALIEN GOROTZ PILAKETA DUEN BASERRIA

Merkatua

- Animaliak aske haztea
- Kimiko gutxiago erabiltzea
- Animalien gorotzak garbitzea

Estatua

- Baserriak gorotz guztiak garbitzera behartuko dituen lege bat
- Etiketatzeko zorrotzagoa izango den lege bat
- NPBa erregulatzea edo aldatzea

Jendartea

- Hazkuntza azkarreko animaliarik ez kontsumitzea, baina nola dakigu hazkuntza azkarrekoak direla?

Dinamizatzaileen oharra:

- Urduñako abeltzain talde batek ezagutza trukeak egiten ditu abereen ustiapenari buruz
- Industria saiatu egin da abeltzainak espezializatu eta produktu bakarra kopuru handian ekoiztera bultzatzen, baina egin beharrekoa ekoizpena dibertsifikatzea da



3. Taldea

1 ARGAZKIA – PRESA HANDIA ETA URTEGIA

- **Merkatua:** uraren erabilera jasangarria berrikustea, gertuko herriek erabiltzea
- **Estatua:** presa eraiki aurretik ingurumen-inpaktuaren azterketa egitea

2 ARGAZKIA – MONOLABOREAN PESTIZIDA FUMIGATZEN DUEN TRAKTOREA

Estatua

- Etekin kopuru batetik aurrera, enpresek diru-laguntzarik ez jasotzea
- Lurretan ekoizpenik ez badago, diru-laguntzarik ez jasotzea
- Estatu mailako hazitegi bat sortzea
- Eskola-jantokiei inguruko produktuak erraztea, eta ekoizle txikientzako legeria malguagoa izatea
- Osasungarriak ez diren produktuen etiketak arreta deitu dezala, tabakoarekin bezala

Jendartea

- Beste lekuetan ere eskola-jantoki jasangarriak zabaltzea

Dinamizatzailleen oharra: Larrabetzun, 4€-ren truke tokiko menu ekologikoa lortu zuten, beraz posible da kalitatezko menu merkea lortzea.

4. Taldea

1 ARGAZKIA - NEKAZARIA ALABAREKIN, EKIALDEKO HERRIALDE BATEAN

- Esportatzeko produktuekin lanean dabiltzala dirudi

Estatua

- Lurra, lantzen dutenentzat izan dadila
- Enplegu duina amarentzat, eta hezkuntza aukerak alabarentzat
- Multinazionalei legeak betearazi eta epaitzea

Jendartea

- Pentsa dezagun jaten duguna, eta aukera ditzagun gertuko elikagaiak



2 ARGAZKIA - HERRI ABANDONATUA:

Jendartea:

- Baserriko bizitza birbalaratu
- Kontzientzia sortzea baserriek bizimodu jasangarriagoak lortzeko egiten duten ekarpenei buruz

Estatua:

- Baserritar eta nekazariak laguntzea, energia eskuratzeko eskubidea izan dezaten
- Herri abandonatuak berreraiki eta berriz populatzeko laguntzak

Bigarren eguna bukatzeko, Desazkundera eta Bizitze Ona Sarearen aldarrikapenak gogoratuko ditugu, "Euskal Herritik kolektibotasunean eraikiz" oinarrizko dokumentuan jasotakoak.

- ✓ Hemen irakurgai: https://www.decrecimientoybuenvivir.info/wp-content/uploads/sites/4/2016/06/EHtik-eraiki-EUS_WEB.pdf

3. eguna, ARITUZ

Hasteko, parte hartzaileak bi zirkulu zentrokideetan kokatuko dira, eta zirkuluetako bat biraka dabilen bitartean parte hartzaileak elkarrekin hitz egiten joango dira: zer moduz dauden, ikastaroari buruzko iritziak eta hirugarren egunaren inguruko itxaropenak.

Mugimendu Zapatistaz dakitenaren inguruan galdetu diegu, eta jarraian John Hollowayren testuaren talde-irakurketa egin dugu. Irakurritakoa taldeetan landuko da, eta talde handian partekatu:

- Guztiok jasan dugu zapalkuntzaren bat inoiz, eta hortaz sumendi bat daramagu gure baitan.
- Ez dugu jende normala errebeldeztat hartzen; banaka kosta egiten zaigu, baina taldeka errazagoa da.
- Mexikon barrurantz errebelde izateko hezi gaituzte, eta ez errebeldia kanporantz adierazteko. Bi errebeldia mota daude: taldekoa eta manifestazioetakoa, eta barnekoa, pertsonala, egunerokoa.
- Sistemak bakardadea eta beldurra erabiltzen ditu gure errebeldia erreprimitzeko.
- Konformista izateari utzi eta kritiko izateko tresnak eskura dauzkagun arren, ez ditugu ikusten. Errazago egiten zaigu liderrari jarraitzea.
- Batzuetan burugogor izan beharra dago, eta aldi berean enpatia izan.
- Aske garela sinetsarazi nahi digute, eta horrek pasibo izatera garamatza.
- Kausarik gabeko errebeldia arriskutsua da, badaude errebeldia mota hori manipulatzeko duten lidergoak. Errebeldia airean dago.
- Entzutea eta hitz egitea garrantzitsua da, errebeldia iritzia ematea baldin bada ez doa inora, gero zein ekintzetan gauzatuko den pentsatu behar delako.



Badaude orbangabeak diren liderrak; haiekin lan egitean distantzia handia sortzen da, eta beraiekin alderatuta oso txiki sentitzen gara. Iritsiezinak iruditzen zaizkigu, eta horrek mugatu egiten gaitu. Hortaz, geure burua aldaketaren subjeto gisa ikusi behar dugu, aktiba daitezkeen sumendiak bezala. Iruzkin gehiago atera dira:

- Guztiok daukagu gauzak egiteko gaitasuna, baina batzuetan ez daukagu indar hori, unearen arabera ere badelako.
- Guztiok gara errebelde, batzuetan beharrezkoagoa da norbere burua zaintzea eta lasaitzea, pankartarekin kalera atera ordez.
- Sentimendu batzuek sumendia itzaltzen dute: bakardadeak eta beldurrak. Nire errebeldia oso guaya da, baina iritzia emateaz gain ez badut erabakirik hartzen ez du ezertarako

balio. Norberaren baitan errebeldia hazia landatu beharra dago. Beldurak edozertarako balio du. Guztia sistemari leporatzea aitzakia hutsa da.

- Gu geu gara sistema, ez bagara banaka aldatzen, ez da ezer aldatuko.
- Baina, era berean, gauzak izendatu behar dira... Beti galdetu behar diogu gure buruari gauzen zergatia.

Jarraian talde lanean egiteko dinamika bat proposatu dugu, denon artean alternatibak, praktikak, borrokak... identifikatzeko. Martxan gaude jada bizimodu jasangarrietarantz, eta badaude oraindik gauzatu ez direnak eta aldarrikatu behar direnak. Arloka sailkatu diren emaitzak erakutsi ditugu:

ONDASUN ETA ZERBITZUEN ETA ELIKAGAIEN KONTSUMOA	
MARTXAN DAGO	EZ DAGO MARTXAN / PROPOSAMENAK
• Lur-funtsak • Natur-ondasunen kudeaketa komunala • Plastic attack kanpaina • Lurzaindia (Iparralde) • Merkatu soziala • Bidezko merkataritza • Banku etikoa • Etiketak irakurri • Jakintzak partekatu eta berreskuratu • Tokiko produktuak kontsumitu • Tokiko haziak erabili • Birziklatu • Hozkailu solidarioa • Sasoiko produktuak erosi • Arropa kontzienteki erosi (deslokalizaziorik eta esplotaziorik gabea), bigarren eskukoa, Slow Fashion... • Ekoizpen- eta kontsumo-kooperatibak • 2. eskuko azokak, elkartasun azokak • Eskola-jantokiaren autogestioa: tokiko produktua, sasoikoa, hondakinen konpostajea • Software askea eta autozaintza digitala • Produktu ekologikoen kontsumitzaileen elkarteak (Bioalai, Landare, Otarra...) • Banatzaile alternatiboak • Kontsumo taldeak • Elikagai bankuak • Soltean eta ontziratu gabe erosi • Tokiko merkatu tradizionalak • Autofinantzaketa komunitateak • Truke espazioak edo doakoak • Dieta beganoa • Telekomunikazio kooperatiba etikoak - Izarcom • Ecosia (interneteko bilatzaile ekologikoa, ez du arrastorik uzten, zuhaitzak landatzen ditu): https://www.ecosia.org/ • "Too good to go" aplikazioa: taberna eta jatetxeetako janari bikaina.	• Marka handiei ez erosi • TB ez ikusi, doako aisialdia • Soilik premiazkoa dena kontsumitu • Haragi gutxiago kontsumitu • Txanpon sozial eta alternatiboak • Arduraz birziklatu • Landareak etxean erein • Autogestioa (arropa, janaria, garbiketa, higieena, kontserbak...) • Elkartasun-hozkailua unibertsitateko kafetegietan • Tupper taldeak • Gauzatekak

LANA	
MARTXAN DAGO	EZ DAGO MARTXAN / PROPOSAMENAK
• Denboraren bankuak • Asanblada feministetan parte hartu • Baratzea landu • Etxeko eta egoitzetako langileak mobilizatuta • Mendekotasunak dituzten pertsonen laguntza: erosketa egitea, adibidez • Lurra lantzeko eskubidea • Udalek lurrak hartzea, jendeak baratzeak landu ditzan • Nekazariak beren produktuak etxeetara erraz eraman ditzaten erraztasunak • FUREAI KIPU: belaunaldi arteko zaintza, zaindu dezaketen pertsonen zaintza behar dutenak zaintzen dituzte • Belaunaldi arteko denboraren bankua • CO² igorpenen diagnostikoa • Debagoienan	• Eskoletan ez digute eguneroko bizitzarako beharrei aurre egiten irakasten • 0tik 3 urtera bitarteko haurren zaintza komunitarioa sustatu • Hoteletan langileek ere beren iritzia uzteko sareak egotea, ez soilik bezeroen iritzia uzteko • Ordu gutxiago lan egin, lana banatu • Oinarrizko errenta guztiontzat, enplegua soldata osatzeko • Kontratu parekideagoak emakume eta gizonen artean • Zaintza lanetan gizonen parte hartzea • Riderrak (Amazon, Glovo...) esplotatzen dituzten enpresak ez elikatu. • Asteko 21 ordu lan egin (soldatapeko lana) • Zaintza aztarna 0 • Langileak esplotatzen dituzten enpresen informazio-sarea exijitu • Autoa partekatzeko tresnak enpresetan

OSASUNA ETA HEZKUNTZA	
MARTXAN DAGO	EZ DAGO MARTXAN / PROPOSAMENAK
• Familiek kudeatutako eskola-baratzeak • Ingurumen-hezkuntzako proiektuak • Hezkuntza ekologikoko taldeak • Genero berdintasuna, jolastoki hezkidetzailak, futbol zelaiak jolastoki osoa ez okupatzea • Emakumeek kirola gero eta gehiago baloratzen da • Gai polemikoagoez hitz egiteko prest gaude • HELa, sendagaien bidezko prezioaren alde • Osasun publikoa ez pribatitzearen aldarrikapena • Osasun eta hezkuntzarako espazio ez arautuak eratu • Herri-hezkuntza: parte hartzaileen ezagutza du abiapuntu • Aurea social: http://www.auresocial.org/ • Seme-alabak bizimodu jasangarriaren baitan hezi • Salutogenesia.	• Eskoletan buruaskitasuna irakatsi, burujabeak izaten ikasteko eta transnazionalen mende ez egoteko • Elkarriketa sustatu, filosofia kentzea delitua da • Bestelako ezagutza sustatu, ez soilik matematika • Hezkuntza laikoa, diru publikoaz eliza katolikoak ez finantzatu • Beste herrialdeetan ere osasuna unibertsala izatea, munduko herritar moduan pentsatu • Ingurumen-heziketa zeharka txertatu eskola-curriculumean; gaur egun kanpoko irakasgaia da • Zorroztasun informatiboko legea txertatu hedabideetan. • Terapia alternatiboak ere osasun publikoak finantzatu. Norberak osasuna nola zaindu erabaki dezala. • Osasun mentalari buruzko estigmak ezabatu



ETXEBIZITZA, ENERGIA ETA MUGIKORTASUNA	
MARTXAN DAGO	EZ DAGO MARTXAN / PROPOSAMENAK
- Bioeraikuntza eta etxebizitza buruaskiak (eguzki-plakak, arkitektura klimatizatuak, euri ura jasotzea) - Ekoherriak - Etxebizitza partekatuak, cohousing - Viveros de Ulla Donostian, etxebizitza gehiago ez eraikitzeko herri-mugimendua - Gasteizko zabortegia. Landaretza aztertzea, gizarte etxeak biomasa bidez berotzeko - Agenda 21 - Aretxabaleta: plastikoa murrizteko taldeak - Ibaia garbitzeko lantaldea Debagoienan - Garraio elektrikoa sustatu (patinetea, bizikleta, autoa, autobusa...) - Ekitermik (eguzki panela) proiektu pilotoa - Durango: erreferenduma trenaren erabilerari buruz - Bla bla car bidez autoa partekatu - On-line ikasketak, telelana - Skype bidezko bilerak - Parkingak peajeetan, autoa partekatzeko - Energia-eraginkortasuna hobetzeko planak (EVE, Aldundiak...) - Energia-kooperatiba jasangarriagoak: Goiener, Som Energia... - Oñati: energia hidraulikoa sortu - Eraldaketa sozialerako kooperatiben	- Etxebizitzetan zerbitzuak partekatu - Itsas bidaldi eta hegazkin bidaiak mugatu eta zergak igotzea - Lantegi zaharrak berrerabili gazteentzako etxebizitzak egiteko, artisauak, gaztetxeak... - Pertsona bakoitzeko CO² igorpenak murriztu - Hegazkinen ordez tren bidezko bidaiak - Energia burujabetza - Etxebizitza hutsak kudeatu - Gazteentzako etxebizitzak - Mugikortasun %100 elektrikoa - Auto elektrikoak kargatzeko gune gehiago - Auzo eta herrietan autoa partekatu - Eguzki panel bidezko LED farolak, igarotzean pizten diren farola adimendunak - Doako garraio publikoa - Tranbiak - Motosharing - Okupazioa - Autoen multijabetza

• proiektuak • LED argiak herrietako kaleetan • Etxebizitza kooperatibak (erabilera lagapena) • Energia aurrezteko tarifak • Garraio publikoa eta bizikleta erabili • Mugikortasun jasangarriaren astea, autorik gabeko eguna... • Eskolarako bide seguruak haurrentzako • Etxebizitza jasangarrietarako laguntzak • Madrid Central, 30km/h hiriak, zentroa oinezkoentzat egin	
--	--

Azkenik, zenbait webgune eta baliabide jaso ditugu, Bizimodu Jasangarrietara bideratutako alternatibak ezagutzeko:

- **Desazkundera eta Bizitze Ona Sarea:** <https://www.decrecimientoybuenvivir.info/eu/>
- **Elikadura burujabetza eraikitzen duten bertako esperientzien mapa:** <http://politikak-elikatzen.bizilur.eus/eu/>
- **REAS Euskadiren Merkatu Soziala**, ekonomia sozial eta solidarioaren arloko enpresa eta kolektiboek osatua: <https://www.mercadosocial.net/eu>
- **Etxalderen app mugikorra**, sasoikoak diren produktu freskoak zeintzuk diren jakiteko eta erosketa jasangarria egiteko: <http://etxalde-app.elikaherria.eus/eu/>
- Donostiako **Saretuz**, mapa baten bidez hirian modu kontziente eta arduratsuan kontsumitzeko tokiak adierazten dira: <https://saretuz.eus/>